




GAZTEMATIKA DATUETAN 2024

Gipuzkoako sustapen arloko datu esanguratsuenak




Bulego Teknikoa

Gaztematikako aholkulari taldea

gazteriabulegoteknikoa@gipuzkoa.eus

2025eko uztaila



Aurkibidea

Sarrera.....	3
1. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak	4
2. Gaztematikaren hedapena	5
3. Gaztematikako sustapenerako Inbertsioa.....	6
4. Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak.....	7
5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak.....	8
6. Gaztematikako profesionalak.....	10
7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza.....	11
8. Gaztematika datuetan adierazleen zerrenda.....	14
9. Lotura duten beste dokumentuak.....	16



Sarrera

- **Zer da**

Gipuzkoako sustapeneko sarearen egoera eta garapena neurtzeko esanguratsuenak diren adierazle bilduma bat da Gaztematika datuetan.

Adierazle sorta eremutan sailkatuta dago: Gipuzkoako haur, nerabe eta gazte kopurua, sarearen hedapena, sustapen arloko inbertsioa, Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak, erabiltzaileak, profesionalak, sarearen antolakuntza eta prestakuntza.

Txostenean adierazle sortatik garrantzitsuenak aukeratu eta nabarmendu dira. Azken datuekin batera, izan duten ibilbidea jasotzen da.

Gaztematika datuetan adierazle sorta, txostenean nabarmendu diren baino adierazle gehiagoz osatua dago. Bukaeran, adierazle guztiak jasotzen dituen taula txertatzen da.

- **Zertarako**

Txostenaren helburua da sustapen arloko datu garrantzitsuenak profesionalen eskura jartzea, beraien lana errazteko eta kudeaketa prozesuetan laguntzeko.

Bestalde, txostena egiten da ere tokiko zein lurralde mailako sustapen politiken inguruko erabakiak hartzen laguntzeko.

- **Norentzat**

Gaztematika barruko hartzaileei begira egindako txostena da: toki zein lurralde mailako sustapeneko teknikarientzat, suspertzailentzat eta sareko hezitzaile eta politikarientzat.

- **Datuen iturriak**

Adierazleak elikatu eta eguneratzeko Gaztesare datu-baseaz baliatu gara. Horrekin batera, Gaztematikako beste txosten batzuetan oinarritu gara: Profesionalen errolda 2022, Gaztematikaren txosten ekonomikoa 2022, Gaztematika datuetan 2022 eta 2023.


Horietako txosten batzuk ez dira urtero egiten, horregatik, txostenean jasotako hainbat datu ez dira 2024ko datuekin eguneratu; txostenaren bukaerako taulan ikus daiteke datu bakoitzaren eguneratze data zein den.



1. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak

1

Gipuzkoako 0-29 adin tartearen pisua eta sexuaren arabera banaketa




Gipuzkoan **209.054** pertsona daude 0-29 adin tartean; populazio orokorraren **%28,54a** da hori.

Nerabeak ia berdin mantendu dira eta gazteak iaz baino gehiago dira. Haur kopurua berriz jaitsi egin da

Sexuaren arabera datua orekatua mantendu da: %51 gizonak dira, eta %49a emakumezkoak.

2

Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen pisua




Gazteen taldea pisu gehien daukana da, ondoren haurren taldea, eta pisu gutxiena daukana nerabeen taldea da, adin tartea txikiagoa delako.



2. Gaztematikaren hedapena

1


Gaztematikako herri kopurua



2024ean, Gipuzkoako 88 herrietatik **79** herri daude sarean, 2023an baino bi gehiago: **Antzuola** eta **Lezo**.

2

Gaztematikaren populazioarekiko estaldura




Gaztematika barruan Gipuzkoako populazioaren **%98,11** dago.



3. Gaztematikako sustapenerako inbertsioa

1

Haur, nerabe eta gazteen Sustapenerako aurrekontua




Grafiko honetan bi adierazle batu dira: batetik, toki zein lurralde mailako administrazioek haur, nerabe eta gazteen sustapenerako daukaten aurrekontu orokorra jasotzen da; bestetik, kopuru hori administrazioetako aurrekontu orokorrarekin alderatzen da, sustapenerako aurrekontuak zer pisu daukan ikusteko.

Azken hiru urtetako goranzko joera apala bukatu eta behera egin du portzentajeak. 2024koa inoiz izan den portzentajerik txikiena da; udal aurrekontun orokorrak sustapenerakoak baino gehiago igo direlako.

2

Pertsona bakoitzeko inbertsioa



Sustapenerako aurrekontua 0-29 adin tartean dauden pertsonen artean zatikatuz, pertsona bakoitzeko inbertsioa ateratzen dugu.

Datua aurreko urtekoarekin alderatuta ia berdina mantendu dela ikus daiteke.




4. Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak

1

Sustapeneko zerbitzu eta ekipamendu kopurua

Sustapeneko zerbitzu kopurua



2023an baino 6 zerbitzu gehiago zenbatu dira 2024ean:

Bi PSZ gehiago, bi haurren zerbitzu gehiago eta beste bi nerabeen zerbitzu gehiago batu dira. Gazteentzako zerbitzuak berriz, berdin mantendu dira.

Ekipamendu kopurua ez da 2023an eguneratu; 2022an **152** ekipamendu zeuden Gaztematikan: 65 haurrentzat, 67 nerabeentzat eta 20 gazteentzat.

HAURRENTZAKO ZERBITZUAK

HZ 24

Andoain, Añetxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errearteria, Eskoriatza, Irun, **Lezo**, Mendaro, Oiartzun, Oñati, Orío, Pasaia, Soraluze, Urnieta, **Villabona**, Zarautz eta Zumaia*.

Bi zerbitzu batu dira: Lezo berria delako searean, eta Villabonan haurrentzako zerbitzua eskaintzen hasi delako.

NERABEENTZAKO ZERBITZUAK

NZ 33

Andoain, **Antzuola**, Añetxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errearteria, Eskoriatza, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte, Legazpi, Mendaro, Oiartzun, Ordizia, Oñati, Orío, Pasaia, Soraluze, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, **Villabona**, Zarautz eta Zumaia.

Iaz baino 2 gehiago: Antzuola berria delako sarean, eta Villabona berriro ireki duelako nerabeen zerbitzua.

GAZTEENTZAKO ZERBITZUAK

GZ 13

Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Donostia Kontadores, Donostia Gaztegunea, Hondarribia, Irun, Lasarte, Legazpi, Ordizia, Oñati, Urnieta eta Zarautz.

2024ean ez da aldaketarik egon zerrendan.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUAK

PSZ 18

Aia, **Alegia**, Amezketa, Anoeta, Berastegi, Elgeta, Errezil, Ibarra, Idiazabal, Irura, Itsasondo, Olaberria, Ormaiztegi, **Zaldibia**, Zegama, Zizurkil eta Zestoa.

2023an baino bi zerbitzu gehiago daude: Alegian berriro ireki dute eta Zaldibian 2024ean hasi dira.

Horiekin batera, Gure plaza txo! zerbitzuaren bidez bederatzi herri dute eskaintza egonkorra: Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain Ikaztegieta, Larraul eta Lizartza.


Guztira, beraz, 18 zerbitzu 27 herritan.



5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak

2

Zerbitzuetako erabiltzaile kopurua




2024ean 2023an baino **haur eta nerabe gehiago** erabili dituzte sustapen zerbitzuak.


Igoera hori portzentajetan ere islatzen da. Zerbitzua erabiltzen duten haurren portzentajeak 7 puntu egin du gora: %9 izatetik %16 izatera pasa da; nerabeen kasuan 3 puntu igo da: %9tik %12ra. Portzentajeak atera dira datuak bidali dituzten herrietako haur eta nerabe kopuruekin.

3

Zerbitzuetako erabiltzaileen sexua



Haurtzaroan, 2024ean ere, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute zerbitzua.



Nerabezaroan berriz, kontrako joera mantentzen da eta **mutilak** gehiengoa dira gaztelekuetan.




5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak

4

Sustapeneko zerbitzuetako erabiltzaileen balorazioa

Zerbitzuetako erabiltzaileen balorazioa




Haur eta nerabeek **oso ondo** baloratu dituzte sustapeneko zerbitzuak.

Nerabeen balorazioa mantendu da 8,4; haurrena berriz, igo egin da, 8,4 izatetik 9,2 izatera pasa da.

5

Udalekuetan egon den parte-hartzea

Udalekuetan egon den parte-hartzea



2024ean, **kopuru orokorra igo** da, baina haur gehiagok parte hartu dutelako izan da, nerabeen parte hartzea jeitsi egin da. Sexuaren arabera parte hartzea nahiko orekatua izan den arren, nesken parte hartzea altuagoa izan da haurren artean (%53a).

Haurrak:

70 herrietako datuak jaso ditugu: guztira **13.992 haur**.

Nerabeak:

Nerabeentzako udako eskaintza publikoa 34 herrietan antolatzen da; guztira **2.179 nerabe**.


Uda kanpainarako **1.664 begirale** kontratatu dira, horietatik **%74a neskak** izan dira.



6. Gaztematikako profesionalak

1

Gaztematikako profesionalak




Hezitzaileak dira Gaztematikako **kolektiborik handiena**, eta urtez urte pixkanaka handitzen ari da. 2023ko erroldan **239** hezitzaile daude.

Informatzaileen taldea berriz **txikitzen** ari da.

Teknikari kopurua jaitsi egin da kategoria **doitu** delako, taldetik kendu dira administrari profila zeukatenak.


Administrariak azaltzen dira lehenengo aldiz taulan, 2022ko erroldan profil horren inguruko informazioa jasotzen hasi ginelako.*



Gaztematikako lau profesionaletik hiru emakumezkoak dira.

2

Gaztematikako hezitzaileak



Haurrekin edo nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen kopurua **berdintsua** da, nahiz eta nerabeen zerbitzu gehiago egon.

Gazteekin lan egiten duten hezitzaile kopurua oso baxua da: hiru besterik ez daude.


* Administrari kopurua Gaztesaretik jasota dago, eta bertan ez dago profil horretako langile guztien informazioa.



7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza


1

Prestakuntzan egon den parte-hartzea




2024ean **asko igo** da prestakuntza eskaintzan parte hartu duen pertsona kopurua. Treba teknikariak eskaintzan igoera eman den arren, **Treba gurasoak eta gazteak** programetan eman da gorakada nabarmenena.

Prestakuntzan parte hartu duten pertsona kopurua guztira




2

Eskaini diren prestakuntza orduak



Prestakuntza orduak guztira




2024an **gazteentzat** izan dira prestakuntza ordu gehienak. Nabarmen igo da programa honetako eskaintza: 23 ordu ematetik 478,5era pasa da eskaintza (egonaldiak eta elkartrukeak bertan sartu direlako).




7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza

3

Prestakuntzaren balorazioa



Prestakuntzaren balorazioen batez bestekoa



Prestakuntzan parte hartu duten pertsonen balorazioak **oso altuak** izaten jarraitzen dute, orokorrean 2023ko balorazioak mantendu dira.

10. Gaztematika Datuetan: Adierazleen zerrenda

GAZTEMATIKA DATUETAN		2024	Sexua			Datuaren
			E	G	EB	urtea
1 POPULAZIOA						
Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak		%28,54	%49	%51		2023
Haurrak (0-11)		%9,67	%49	%51		2023
Nerabeak (12-17)		%6.39	%49	%51		2023
Gazteak (18-29)		%12.47	%48	%52		2023
2 HEDAPENA						
Gaztematika osatzen duten herri kopurua		79				2024
Gaztematikaren populazioarekiko estaldura		%98,11				2024
3 INBERTSIOA						
Haur Nerabe eta Gazteen Sustapenerako aurrekontua		21.873.734€				2024
Aurrekontu orokorrarekiko portzentajea		%0,75				2024
Inbertsioa pertsona bakoitzeko		104,63€				2024
Udaletan Sustapena lantzeko Aldunditik bideratutako diru-laguntza		472.500 €				2024
4 SUSTAPEN ZERBITZUAK						
Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzu (PSZ) kopurua		18				2024
Haurren Zerbitzu kopurua		24				2024
Haurrentzako ekipamendu kopurua		65				2022
Nerabeen Zerbitzu kopurua		33				2024
Nerabeentzako ekipamendu kopurua		67				2022
Gazte Zerbitzu kopurua		13				2024
Gazteentzako ekipamendu kopurua		20				2022
Gaztematikako sustapen zerbitzu kopurua		88				2024
Gaztematikako sustapen ekipamendu kopurua		152				2022
Familia gune kopurua		12				2022
5 ZERBITZUETAKO ERABILTZAILEAK						
Gaztematikako sustapen zerbitzuetako haur kopurua		4.599	54	46		2023/24
Erabiltzaileen balorazioa		9,2				2023/24
Gaztematikako sustapen zerbitzuetako nerabe kopurua		4.954	44	56		2023/24
Erabiltzaileen balorazioa		8,4				2023/24
Udalekuetan parte hartzen duten haur eta nerabe kopurua		16.171	52	48		2023/24
Haurrak 4-11		13.992	53	47		2023/24
Nerabeak 12-17		2.179	50	50		2023/24

10. Gaztematika Datuetan: Adierazleen zerrenda

6 ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK

Gaztematikan lan egiten duten erreferente teknikoak	89	%75	%25		2022
Gaztematikan lan egiten duten suspertzaileak	9	%89	%11		2022
Gaztematikan lan egiten duten informatzaileak	8	%88	%12		2022
Gaztematikan lan egiten duten hezitzaileak	239	%74	%26		2022
Gaztematikan lan egiten duten administrariak	13	%100			2022
Gaztematika sarean lan egiten duten profesionalak	358	%74	%26		2022
Udalekuetan lan egiten duten begiraleak	1.664	74	26		2024

Gaztematika sareko sustapen politikariak	30	%67	%33		2022
--	----	-----	-----	--	------

7 ANTOLAKUNTZA

Gaztematikako hezitzaileen foroetako parte-hartzea	52	%74	%26		2023/24
Balorazioa	7,82				2023/24
Gaztematikako teknikarien foroetako parte-hartzea	56	%78	%22		2023/24
Balorazioa	8,06				2023/24
Gaztematikako foroetako parte-hartzea guztira	108				2023/24
Balorazioa	7,94				2023/24

8 PRESTAKUNTZA

Gaztematika sareko gurasoentzat prestakuntza eskaintza: orduak	180				2023/24
Parte-hartzea	2.898	%84	%16		2023/24
Balorazioa	9,3				2023/24
Gaztematikako herrietan bizi diren gazteei zuzendutako prestakuntza eskaintza: orduak	478,5				2023/24
Parte-hartzea	561				2023/24
Balorazioa	9,1				2023/24
Gaztematika sareko hezitzaileentzat prestakuntza eskaintza: orduak	28				2023/24
Parte-hartzea	137	%75	%25		2023/24
Balorazioa	8,43				2023/24
Gaztematika sareko teknikarientzat prestakuntza eskaintza: orduak	22				2023/24
Parte-hartzea	108	%84	%16		2023/24
Balorazioa	7,83				2023/24
Gaztematikako TREBAkuntza: orduak	708,5				2023/24
parte-hartzea	3704				2023/24
balorazioa	8,66				2023/24

11. Lotura duten dokumentuak

1. [Gaztematika datuetan 2022](#)
2. [Gaztematika datuean 2023](#)
3. [Errolda. Haur nerabe eta gazteen sustapeneko profesionalak Gipuzkoan 2022](#)
4. [Erabiltzaileen datuak eta balorazioa 2022-2023 ikasturtea](#)
5. Gaztematikaren txosten ekonomikoa 2022
6. [Gaztematikaren argazkia 2019-2022](#)



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro